

STORBAIS ETA KALLE 12 MARTXAN

Storbais ermuarrak Madrilen, Palentzian eta Galizan izan dira kontzertuak jotzen, "Kanariasen jotzeko aukera ere bagenuen, baina garrarioa oso garestia ateratzen zen, bestela..." dio Txino abeslariak. Egia esan, gogorik ez zaie falta iluzite hauei. Madrilen A Palo Seko taldearekin jo zuten, eta kontzertuak dutenez, diru kontuak ezik beste guztia "de la hostia" atera zitzairen. Urtarrilean seguraski, "A Palo Seko" madrildarrak Ermuan izango ditugu hainbat polemika eragin dituen beraien lehenengo diska aurkezten.

Palentziako Etxe Okupatuan ere jo zuten ermuarrek eta baita Orense hirian ere, baina arrakastarik handiena Ribadabian (Orense) lortu zuten, non Foryren lehengusua taldearen maketa ezagutarazteaz arduratu baitzen. "Kontzertua hasi eta jendeak abestiak zekizkien! Batzuetan haiei niri baino gehiago entzuten zitzairen! Pasote!" dio Txinok poz-pozik. Era-emandako maketa guztiak saldu zituzten eta oraindik ez zaie aurpegitik joan handik ekarritako irribarrea, belarritik belarrira.



Storbais Ribadabian (Orense). 94-12-3.

Kalle 12koek aldiz, Ermuan nahi izan zuten beraien maketa aurkeztu, eta hala egin zuten abenduaren 3an herriko plazan. Udalak tresneria alokatzeko diru laguntza eman zuen baina taldearentzat xentimorik ere ez zen izan. Behintzat barra bat jartzeko aukera izan zuten eta hortxe ibili ziren Kalle 12koen koadrilako guztiak kañak ateratzen taldekoek bereari ekiten zioten bitartean. Jende gutxi hurbildu zen kontzertua en-

tzun-ikustera, askok gainbegirada bat eman eta alde egiten zuen, plazako kontzertuetan gertatzen den legez. Plaza ez da tokirik egokiena horrelako ekitaldi baterako, ez baita leku itxi eta txikiagotan egoten den giroa sortzen, baina Kalle 12koak behintzat kontent eta gogoz beterik egin zuten beraien lana.

Markos Gimeno



ELEKTRIZISTA

José Angel Ziarso Izaguirre

Zorionak!

Izelaieta kalea, 4
☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11



TXINDURRI TALDEA

Tokian tokiko